

**IKASTETXE GUZTIENDAKO JARDUERA KOMUNA. 2011KO MARTXOAN EGITEKOA.**  
**JARDUERA MOTA: IKERKETA LANA + IKASTETXEETAN AZALPENA**  
**JARDUERAREN EDUKIA: AUTONOMIA ETA ENPLEGUAREN ZENTRALITATEA**

<b>IKASTETXEA</b>	<b>San Fermin Ikastola</b>
<b>HERRIA</b>	<b>Zizur Txikia</b>

**1. JARDUERAREN PROGRAMAZIOA**

<b>IZENBURUA/GAIA ETA JARDUERAREN DESKRIBAPENA</b>	ORAIN EZ DUT HAINBESTE LAGUNTZARIK BEHAR. Fitxa batean beraiek bakarrik egin ditzaketen gauzen zerrenda bat jarriko dugu; dutxatu, zapaten lokarriak lotu, xerra moztu eta ohea egin. Fitxaren eskuinaldean bi marrazki agertuko dira ; lehenengoan neska eta mutiko bat agertzen dira, bigarrenean neska eta mutikoa heldu batekin agertzen dira. Ikasleek laguntzarik gabe egiten badute lehenengo marrazkiarekin lotuko dute, laguntzarekin egiten badute berriz, bigarrenarekin. Fitxa egin ondoren bateratze-lana egingo da eta irakasleek ikasleen autonomiaren mailan sakontzeko aukera izango dute; arropa bakarrik janzten duten, orrazten diren, mahaia jartzen duten,....
<b>HELBURUAK IKUSPEGIA/TRANSMITTITU NAHI DIREN IDEIAK</b>	Helburua: Eguneroko azturetan duten autonomi mailari buruz gogoeta egitea.
<b>PARTE-HARTZAILEAK: IRAKASLEAK, IKASLEAK, FAMILIAK...</b>	Ikasleak.
<b>BALIABIDEAK, MATERIALAK... ARGAZKIAK, OBJEKTUAK, ELKARRIZKETAK...</b>	Fitxa eta arkatza.

**2. JARDUERAREN LABURPENA**

<b>IZENBURUA/GAIA ETA JARDUERAREN DESKRIBAPENA</b>	GURE FAMILIEN ZUHAITZ LABORALA. Ikasleek bere familiaren emakume eta gizonen enpleguak etxean galdetu eta paper batean idatzita ekarriko ditu. Gelan irakaslearen laguntzarekin zerrenda laburpen bat egingo dute, datuak sexuaren arabera bananduz: 1. Amonak eta aitonak 2. Aitak eta amak, izebak eta osabak. 3. Anai-arrebak, lehengusinak eta lehengusuak.
<b>HELBURUAK IKUSPEGIA/TRANSMITTITU NAHI DIREN IDEIAK</b>	Helburua: Belaunaldi bakoitzean emakumeek eta gizonak dituzten enpleguen ezberdintasunak aztertu.
<b>PARTE-HARTZAILEAK: IRAKASLEAK, IKASLEAK, FAMILIAK...</b>	Ikasleak , irakaslea eta familiak.
<b>BALIABIDEAK, MATERIALAK... ARGAZKIAK, OBJEKTUAK, ELKARRIZKETAK...</b>	Papera eta arkatza.